



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2016/2017 ikasturtea

LEHEN HEZKUNTZAN AHOZKO HIZKUNTZA LANTZEN: BERBALEKU WEB ORRIA

Egilea: Libe Yaldebere Irusta

Zuzendaria: Aintzane Etxebarria Lejarreta

Leioan, 2017ko maiatzaren 25ean

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1. Ahozko hizkuntza: definizioa eta ezaugarriak	4
2. Ahozko hizkuntza dokumentu ofizialetan: curriculumean eta Europako Erreferentzia Marko Bateratuan	5
3. Ahozko hizkuntzaren garrantzia eskolan	8
4. Ahozko hizkuntza lantzeko baliabideak eta metodoak: EAEn eta beste toki batzuetan	11
4.1. EAEn.....	11
4.2. Beste lurralde batzuetan	12
5. Ahozko hizkuntza eta Internet.....	14
6. Proposamena: web orria.	16
6.1. Curriculumarekin lotura	16
6.2. Proposamenaren deskribapena	18
6.2.1. Proposamenaren atalak eta burutzeko erabilitako prozedura	18
7. Ondorioak.....	22
8. Bibliografia	23
E R A N S K I N A K.....	26
1. eranskina: Proposamenarekin bete nahi diren helburuak.	27
2. eranskina: Berbaleku web orriko atal interesgarriak.	29

LEHEN HEZKUNTZAN AHOZKO HIZKUNTZA LANTZEN: BERBALEKU WEB ORRIA

Libe Yaldebere Irusta

UPV/EHU

Gaur egun, hezkuntza arloko gero eta profesional gehiago ari dira ahozkotasuna lantzeko beharraz ohartzen. Euskararen erabilera bultzatu nahi bada, beharrezkoa da umeei hizkuntza horretan mintzatzeko ingurunea eskaintzea. Ahozkotasuna lantzeko baliabideak urriak eta errepikakorrak direla ikusi da, eta teknologia berriek ematen dituzten aukerak gutxi erabiltzen dira orokorrean. Esku artean duzun lan honetan ahozko hizkuntza lantzeko proposamen berritzaile bat eskaintzen da: web orria. Material honen bidez, irakasle eta gurasoentzako informazio eta baliabide gune bat eskaintzen da, Lehen Hezkuntzako umeekin ahozkotasuna era aktibo eta dibertigarrian lantzeko aukerak emanez.

Ahozkotasuna, eskola, web orria, berrikuntza, euskara

Hoy en día, cada vez más profesionales de la educación se dan cuenta de la necesidad de trabajar la oralidad. Si se quiere reforzar la utilización del euskera, es necesario ofrecer a los estudiantes un entorno para practicarlo. Se ha visto que los recursos para trabajar la oralidad son escasos y repetitivos, y no se suele hacer mucho uso a las posibilidades que nos ofrecen las nuevas tecnologías. En este trabajo que tienes entre manos, se ofrece una innovadora propuesta: una página web. Mediante este material, se ofrece tanto a los profesores como a los padres y madres un punto de información y recursos, para que puedan trabajar el lenguaje oral con niños de Educación Primaria de una forma activa y divertida.

Oralidad, escuela, página web, innovación, euskera

Nowadays, more and more education professionals realize the need to work on oral language. If we want to reinforce the use of Euskera, it is necessary to offer students an environment to practice it. Resources to work orality are scarce and repetitive, and not much use is made of the possibilities offered by new technologies. In the work you have in hand, an innovative proposal is offered: a web page. Through this material, both teachers and parents are offered a point of information and resources, so that they can work with oral language with children of Primary Education in an active and fun way.

Orality, school, web page, innovation, euskera

Sarrera

Gizakiok komunikatu beharra dugu, ideiak partekatu, beharrak azaldu eta harremanak sortzeko. Eskolan adibidez, ahozko komunikazioa atetik sartu eta berehala ikusten da, irakasleak edo lagunek elkar agurtzen dutenean. Hala ere, ahozkotasuna alde batera geratu izan da sarritan, izan ere, ikasgelan lantzen den hizkuntza eredu idatzia izan da gehienbat. Gehienetan ahozkoaren trataera oso orokorra izaten da, gelako ohiko elkarrekintzetan bakarrik oinarritua, irakasleari eskaerak egiteko edota haren galderei erantzuteko.

Ahozkotasunarentzako eta bereziki euskararen erabilera bultzatzeko baliabide berriak behar ditu eskolak. Gradu Amaierako lan honetan, proposamen berritzaile bat eskaintzen da, irakasle eta gurasoei informazioa eta baliabideak eskaintzeko balioko duen web orria.

Gaur egun teknologia berriek aukera gehiago sortu dituzte, eta hezkuntzan kontuan hartu beharreko kontua da hori. Interneten adibidez, baliabide ugari daude hizkuntzak ikasi eta praktikatzeko, eta eskolarako ere baliogarriak izan daitezke. Ikasleek gero eta gehiago erabiltzen dituzte baliabide digitalak: bideoak, sare sozialak, podcast-ak... Hizkuntzaren erabilera bultzatu nahi bada (kasu honetan euskararena), kontuan hartu behar da ikasleen zaletasunak zeintzuk diren, horrela hizkuntza lantzea ez da aspergarria izango ikasleentzat.

Lan honen antolaketan lehenik eta behin, esparru teorikoa bildu da, ahozkotasunaren inguruko informazioa azalduz: zer den ahozko hizkuntza, hura lantzeko beharrezana, dokumentu ofizialetan duen trataera eta beste herrialdeetako informazioa. Proposamenaren berri eman aurretik haren justifikazioa egin da, eta ondoren, web orria osatzeko erabili diren baliabideak azaldu dira, atal bakoitzean sakonduz. Amaieran ondorioak aiderazi dira, web orriak dituen aukerak aipatuz.

1. Ahozko hizkuntza: definizioa eta ezaugarriak

Hitz egitea komunikatzea da, ideia edo sentimenduak elkarbanatzea, akordioetara heltzea, arazoak konpontzea eta erabakiak hartzea. Badakigu hitz egiteak berarekin dakarrela entzutea, entzuteko prest egoteko jarrera. Ramírez-en (2002) arabera, esan daiteke ahozkotasuna hizkuntza integratua entzutea dela (mezua ulertzen lagunduko diguten zeinu guztiei adi egonez) eta hizkuntza bera erabiltzea edo hitz egitea.

Jakina denez, testu bat ahoz zein idatziz transmititu daiteke. Hala ere, mezua zeren bidez igortzen den, bi diskurtso modalitate horiek bereizten dituen irizpideetako bat baino ez da. Lamas-ek (2005) beste zenbait autoreren aipamena egiten du hitz egitea eta idaztea hizkuntzaren bi modalitate ezberdin direla azaltzeko, ikuspuntu linguistikotik begiratuta modu ezberdinean sortu eta adierazten direnak. Idatzizko eta ahozko hizkuntzaren desberdintasunak honakoak dira: ezaugarri linguistikoak (lexiko, morfosintaktiko eta testualak) eta prozesu komunikatiboari eragiten dioten ingurune faktoreak. Beste zenbait faktoreen artean, ahozkoa bat-batekotasun komunikatiboan oinarritzen da, emisioaren eta hartzearen aldiberekotasuna gertatzen delako, hau da, hartzailea eta igorlea aldi berean, egoera berean ari dira komunikatzen.

Askoz lehenago ikasten dugu ahoz komunikatzen, idazten komunikatzen baino. Bizitzako lehen bi urteetan, umeak familiakoekin komunikatzeko balio zaizkion lehen hitzak ikasten ditu. Lau- bost urte inguru dituenean, hitz solte horiek egitura konplexu eta gramatikalki ordenatuak diren esaldi bihurtzen dira. Idatzizko hizkuntzaren ikaskuntza sei urte ingururekin ematen da normalean, eta horregatik, orokorrean jendeak erraztasun handiagoa izaten du ahozko adierazpenerako (Müller, 1999).

Ahozko diskurtsoaren inguruan egin diren ikerketa sakonek erakutsi dutenez, ahozkotasunak bere barnean hitz egiteko egoera eta diskurtso modu asko hartzen ditu. Diskurtso modu horiek daukaten ezaugarri komuna hau da: ahozko kanalaren bidez igortzen da mezua. Ezaugarri komuna duten arren, euren artean desberdintasunak daude. Ahozko diskurtso modu batzuen ezaugarriek gainera, idatzizko testu mota batzuen berezitasunak dituzte (Vilá eta Castellá, 2005).

Diskurtso moduekin jarraituz, Perez-ek (2014) Dolz eta Schneuwly-ren (1997) testuen sailkapena aipatzen du, idatzizko eta ahozko testuak sailkatzeko balio duena. Bost

kategoria bereizten dituzte: literatur kulturarekin lotutako testuen narrazioa, giza ekintzak kontatu, argudioak eman, azaldu eta ekintzak deskribatu.

Ahozko komunikazio ekintzen beste sailkapen bat aipatzearen, Larrea eta Maia-k (2010) hiru taldetan banatzen dituzte, parte-hartzaile kopurua kontuan hartuz: banakakoa, bi pertsonakoa eta bi baino gehiago ari direnean. Bakarra denean hizketaldiaren kontrola daukana, komunikazio monokudeatua esaten zaio, eta kasu honetan, hizlariak modu antolatuan bideratzen du bere hizketaldia, amaitu arte hartzaileek ez dute parte hartzen. Komunikazio mota honek jendaurrean hitz egiteko gaitasunarekin du zerikusia. Bi pertsonen arteko mintzaldiari, *biko komunikazio* izena ematen diote. Kasu honetan, biek txandaka betetzen dituzte igorlearen eta hartzailearen paperak, eta bata bestearen mintzaldiari eragin diezaioke. Bi pertsona baino gehiagoren arteko hizketaldiari *komunikazio plurala* esaten zaio, eta kasu honetan ere igorle-hartzaile arduratu txandakatu egiten da. Azken bi taldeen arteko egoerei *plurigestionatu* esaten zaie, eta horiek izaten dira debatea eta solasaldia. Azken hau egunerokotasunean erabiltzen dugun jarduna da, espontaneotasunean oinarritzen dena.

Ahozko moduekin aurrera eginez, Vilà eta Castellà-ren (2014) esanetan, ahoko hizkuntza ez da bakarra. Gure hurbileko inguruetatik at (lagunartean zein familian), hitz egiteko beste modu batzuk daude, eta pertsona guztiak ez dira ondo moldatzen egoera horietan. Modu horri ahoko hizkuntza formala deritzo. Ahozko modu formalari dagokionez, autore hauek honako sailkapena egiten dute: alde batetik, hizketaldi bereziak ditugu, elkarrizketak eta lan batzarrak izan daitezkeenak; bestetik askotariko berbaldi antolatuak daude, eztabaida edo tertuliak; eta azkenik, jendaurreko bakarrikizketak, konferentzia edo mitinetan egiten direnak.

2. Ahozko hizkuntza dokumentu ofizialetan: curriculumean eta Europako Erreferentzia Marko Bateratuan

Euskal curriculumari erreparatzen badiogu, Heziberri 2020 Planaren Euskal Autonomia Erkidegoko curriculum Dekretuari (Haur Hezkuntza, Oinarrizko Hezkuntza eta Batxilergokoa) hain zuzen ere, hizkuntzaren atalak garrantzi handia hartzen duela ikusiko dugu. Dokumentuak Euskal Herriko gizarte eleaniztuna aipatzen du, eta eskolak

elebitasuna bermatzeko erronkaren aurrean, ikaskuntza prozesuan euskara erabiltzearen beharra azpimarratzen du: “euskara erabiltzea funtsezkoa dela ahoz eta idatziz behar bezala komunikatzeko gai izateko, sistema eleaniztun honek euskara izango du ardatz, era horretan gainditu ahal izateko bi hizkuntza ofizialen arteko desoreka –gaur egun euskararen aurkako–, eta bi hizkuntzen berdintasun soziala eta ikasleen aukera berdintasuna sustatzeko.” (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2014, 31.or.)

Euskal curriculumak euskarari ematen dio lehentasuna, izan ere, bi hizkuntza ofizialen artean desorekatuen dagoena da. Eskola bakoitzak kontuan hartuko ditu ikasleen inguruneke baldintza soziolinguistikoak eta horren arabera abian jarriko ditu zentroko Hizkuntza eta Curriculum Proiektuak. Oinarrizko Hezkuntzaren ardura izango da euskara eta gaztelania lantzea, eta ikasleek bi hizkuntza horietan eskuratu behar dituzte ahoz zein idatziz adierazitako gaitasunak. Horretaz gain, hizkuntzak irakasteko praktika jartzen da oinarrian, eta hori dela eta, hizkuntza eta edukiak integratzea omen da zentzuzkoena. Gainera, hizkuntza gaitasuna garatzea hizkuntza-gaiak ematen ez dituzten irakasleen ardura ere badela adierazten da. Irakasle bakoitzak dagokion arloko esamoldeak irakatsi behar ditu, eta bakoitzeko egoerak ebatzeko erabili behar ditu. Hizkuntzen irakaskuntza ikuspuntu komunikatibo batean oinarritu behar da, ikasgelak komunikazio-gune bihurtuz.

Hizkuntza eta Literatura Komunikaziorako kompetentziako helburuen artean, ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertu eta interpretatzeko beharra azaltzen da. Gainera, ahozko komunikazioa bigarren eduki multzoaren barnean aurki dezakegu.

Ahozko komunikazioarekin lotutako hizkuntza-trebetasunak ahaztuak izan ditu erabat gure eskola-sistemak. Eta, hala eta guztiz ere, behar-beharrezkoa da hizkuntza-trebetasunon garrantzia behar bestetan azpimarratzea, horiek emango baitiete aukera ikasleei beren komunikaziorako kompetentzia guztiz garatzeko, ikasgelan ikaskideen arteko komunikazioa errazteko eta esaten dituztenen esanahia behar bezala negoziatzeko. (...) Horrekin batera, baina, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoa zein den kontuan hartuta, eta gure hizkuntzaren erabilera soziala eta normalizazio-prozesua sustatuko baditugu, begi-bistakoa da eskolan nahitaez bultzatu behar dugula gure ikasleek elkarrekin euskaraz hitz egin dezaten. (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2016, 154.or.)

Curriculumak alde batera utziz, Europako Erreferentzia Markoak Europa osorako hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako oinarri bateratua proposatzen

digu, metodologia eta ebaluaziorako irizpide batzuk zehaztuz: “Erreferentzia Markoak ez duela ikasleei hizkuntzaren erabiltzaile lehiakor izateko behar dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak azaltzera mugatu behar; aitzitik, hizkuntzak bereganatzeko eta ikasteko prozesuez ere jardun behar du, eta baita irakaskuntzaren metodologiaz ere” (Europako Kontseilua, Hizkuntza Politika Saila, 2001 37.or.).

Europako Kontseiluaren Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoaren (2001) arabera, pertsona baten hizkuntza gaitasuna hizkuntza jardueren bitartez garatzen da, eta jarduera horiek dira, harrera, ekoizpena, elkarreragina eta bitartekotza. Jarduera horiek ahozko zein idatzizko testuen bidez egiten dira. Horretaz gain, hizkuntza jarduerak arloen testuinguruan kokatzen direla diosku Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoak. Lau arlo mota bereizten dira: publikoa, pertsonala, hezkuntza eta lan arloak. Horietan guztietan atazak gauzatzeko hizkuntza jarduerak erabili behar dira, eta horregatik beharrezkoa izango da ahozko zein idatzizko testuak garatzea. Ataza horiei behar bezala erantzuteko estrategiez baliatzen gara, eta hauek dira hizkuntzaren erabiltzaileak bere gaitasunak abian jartzeko erabiltzen dituen bideak. Estrategia horien erabilerarekin ahozko zein idatzizko ekoizpenak sortzen ditugu.

Ahozko jardueren inguruan honako definizio hau ematen digute: “Ahozko ekoizpen-jardueretan (hitz egitea), hizkuntzaren erabiltzaileak ahozko testu bat ekoizten du, entzule bat edo gehiagok hartzen dutena” (Europako Kontseilua, Hizkuntza Politika Saila, 2001, 79.or.). Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoan ahozko adierazpenaren maila zehazterakoan eskala orokor bat aipatzen da hasieran, eta gero honako azpi-eskala hauek aipatzen dira: bakarrizketa jarraitua, esperientzien deskribapena; arrazoibidea (eztabaida); jendaurreko adierazpenak eta jendaurrean hitz egitea.

Europako Kontseiluak metodoen aniztasunari ematen dio garrantzia eta horregatik ez ditu zehazten hizkuntza bat irakasteko jarraitu beharreko pausuak, Erreferentzia Markoaren erabiltzaile edo irakurleari galderak planteatzen dizkio, horren inguruan gogoeta bultzatzeko.

3. Ahozko hizkuntzaren garrantzia eskolan

Eskolan ahozkotasanaz aritu baino lehen, ikus dezagun eskolaren eginkizunak zeintzuk diren:

Idiazabal eta García-k (2006) zenbait autoreren aipamena egiten dute gai honen inguruan. Schneuwly-ren (2002) aipamena eginez, eskolaren betebeharra da oinarrizko teknika eta kultura-jakintzak eskuratzeko beharrezko sistema psikiko berriak osatzen laguntzea. Irakasleak sistema horiek ikaslearekin batera osatu behar ditu, ez zuzenean emanaz, baizik eta horiek eraikitzeo tresnak emanaz. De Pietro eta Dolz (1997) aipatuz, eskolaren helburua ez da bakarrik ikasleen gaitasunak garatzea, euren inguruko praktika sozialak ulertzeko laguntza eskaintzea ere bada. Beraz, horri kasu egiten badiogu, nahiko argi ikusiko genuke ahozko hizkuntza eskolan ere landu beharreko kontua dela.

Sarritan, ahozko hizkuntza berez ikasita dagoen arloa dela uste denez, eskolak bere ekintzak idazmenean oinarritzen ditu, eta horren ondorioz, derrigorrezko hezkuntza amaitzean jende askok arazoak izaten ditu jendaurrean hitz egiteko. Vilà eta Castelláren esanetan (2014) eskolak ahozko hizkuntza alde batera utzi izan du askotan; eta ahozko adierazpen modurik nagusia, elkarrizketa, eragozpentzat hartu izan da sarritan, klasean hitz egitea debekatuz.

Autore berberen arabera (Vilà eta Castellá, 2014), gure kulturaren idatziak izan duen paper garrantzitsuak eta hura ikasteko dagoen zailtasunak, mende askotan eskoletan idazkera bakarrik lantzea ekarri du. Hizkuntzen didaktikaren ikuskera tradizionala, oraindik ere batzuetan indarrean dagoena, hurrengo hiru alor hauetan oinarritzen zen: kaligrafian, ortografia nahiz gramatika arauetan eta literaturaren historian. Horrela, ahozkotasuna erabat baztertuta geratzen zen. XX.mende hasieran eskoletako errealitatea zen hori, ahozko hizkuntza zentro berezietan bakarrik lantzen zen: goi mailako eskola batzuetan jendaurreko ahozko diskurtsoak lantzen ziren, gizarteko buruak formatze aldera. XX.mende erdialdean, arreta gehiago jarri zen ahozko hizkuntzan, baina denbora gutxian ikasten zela pentsatzen zuten, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen maila igaro ostean, garrantzitsuena idazmena lantzea zen. Bigarren edo hirugarren hizkuntzen ikaskuntza ere gramatikaren lanketaren bidez egiten zuten, hizkuntza horietan hitz egiteko gaitasuna ikasleak garatuko zuelako ustearekin.

Gaur egun, zenbait autore aritu izan dira ahozkoahotasuna eskolan zergatik landu behar den justifikatzen:

Idiazabalek eta Garcíak (2006) De Pietro eta Dolzen (1997) aipamena eginez diote ahozko trebetasuna gure ingurukoekin ditugun elkarrekintzen ondorioz garatzen dela lehenengoz. Matthey-ren (1997) aipamena ere egiten dute, honen arabera, umeeek eskolan sartu baino lehen ahozko sintaxia nahiko menderatzen dute, eta euren gustuko gaien inguruko elkarrizketa mantentzeko gai dira. Hori dela eta, ahozkoa hasiera batean nahi gabe ikasten da. Baina hori horrela izanik, ikasleek ez dute aukerarik eskolatik kanpo zenbait komunikazio forma bereganatzeko, hala nola, elkarrizketa, debatea eta hitzaldiak.

Azken ideia horrekin bat datoz Larrea eta Maia (2010). Eurek diotenez, eskolaren funtzioetako bat ikasleen jatorrizko desberdintasunak gutxitzea dela badiogu, ahozkoa lantzeko arrazoietako bat izan daiteke hori, izan ere, testuinguru sozial batzuetan ez dira lantzen jendartean erabiltzeko balio duten gaitasun batzuk. Horregatik, eskola izaten da batzuentzako gaitasun horiek garatzeko leku bakarra. Gainera, normalizazio-prozesuan dauden hizkuntzen kasua aipatzen dute, gure kasuan euskararena.

Aurrekoarekin jarraituz, mintzamenaren garapena prozesu luzea da eta kontuan hartu behar dugu hemen, Euskal Herrian, euskara hizkuntza gutxitua izanik, haren erabilera sustatu nahi badugu, testuinguru soziolinguistikoak ere kontuan hartu beharko ditugula. Horietako askok ez du laguntzen, izan ere, ikasle askok askotan ez dute ikasgelatik kanpo euskaraz mintzatzeko aukerarik izaten. Horregatik, kontuan hartu behar dugu eskola dela “hizkuntza baten normalizazio-prozesuaren zutabe eta eragilerik oinarritzkoenetakoa. Bere eginkizuna, ordea, erlazionatuta egongo da euskal gizarteko beste sektore guztiekin, interakzio-prozesu batean, non eskola izango baita euskalduntzearen bultzatzailea (Euskararen Aholku Batzordea, 2004, 35.or).

Sainz, Ozaeta, eta Garroren arabera (2009), hitz egitea oso garrantzitsua da mintzatzen ikasteko. Horretaz gain, ahozko testuei ere jarri behar zaie arreta, argi baitago lagunarteko solasaldia eta jendaurreko hitzaldia egitea ez direla gauza bera. Ikasleek hiztun onak izateko, negoziatzeko, narrazioak egiteko gaitasuna izan behar dute. Hala ere, ahozko testuak lantzen ditugunean, kontuan izan behar dugu ahozkoaren alderdi

batzuk bakarrik lantzen ari garela, eta horietako batean ikasle bat ondo moldatzen bada, ez du zertan esan nahi gainerako gaitasunak barneratu dituenik.

Ahozko testuak aipatuta, Idiazabalek eta Garcíak (2006) Schneuwly-k (2002) dioena aipatzen dute. Honen esanetan, bereizi egin behar da ahozkoa irakas/ikasteko bide bezala erabiltzea edo ahozkotasuna gai zehatz bezala lantzea. Hainbat arlo dira hizketaren bidez landu behar direnak, baina horiek ez dira zuzenean ahozko didaktikatzat hartzen. Beraz, ahozkoa eskolan bi egoeratan lantzen da; alde batetik, beste arloetako jardueretan; beste alde batetik, ahozko testuen ekoizpena jorratzean.

Ahozko testuak lantzea garrantzitsua den arren, gela barruan hitz egiteko aukera emango dien testuinguru bat egon behar da, ikasleak ikasketa prozesuko protagonista bihurtuko dituena. Horrela, aukera gehiago izango dute parte hartze luzeagoak eta konplexuagoak egiteko, hau da, ez dute irakaslearen galderei erantzuteko bakarrik hitz egingo eta ikasgelan beste gauza batzuetarako ere berba egitera ohituko dira (Sainz, Ozaeta, eta Garro 2009). Izan ere, ematen du askotan “hitz egiten ikastea esaldi zuzenak egiten ikastea dela, gelako elkarriketen oinarrian behin eta berriz gertatzen diren galdera-erantzuna ebaluazioa formatuaren arabera.” (Perez, Azpeitia, eta Alonso, 2015, 38.or.).

Beste zenbait proposamenek, esaterako, Vilà eta Vilak (1994) egiten dutenak, idatzizko hizkuntzari ematen zaion trataeraren ezaugarri berberak dituen ahozko hizkuntzaren trataera proposatzen du eskolarako. Ahozko gaitasun komunikatiboa eskuratzea, hizkuntzaren erabilera ezberdinak indartuz lortzen da, eta zentzu horretan oso garrantzitsua da ahozko hizkuntzarako testuinguru errealak eskaintzea, baita ahozkotasuna bultzatuko duten idatzizko baliabideak erabili ahal izatea ere. Bi autore hauen ustez, ahozko azalpen bat prestatzeko bibliografia bilatzeak, gidoia egiteak eta ahozko testu baten grabaketa entzuteak ez dute bakarrik ahozko jardueretako parte hartzea errazten, ahozko diskurtsoaren forma eta edukia hobetzeko ere beharrezkoak dira.

Amaitzeko esango dugu ahozko hizkuntza gure klaseetan sartzeko, klaseen antolamendua aldatu behar dela eta beharrezkoa da horretaz ohartzea. Gaitasun komunikatiboa lantzeko ikasleari eman behar zaio hitza, eta lan egiteko modua aldatu behar da (Sierra, 1996).

Azken urteetan, herrialde askotako curriculumetan (Italiako 2012ko *Indicazioni nazionali per il curricolo* adibidez), hizkuntzen arloko helburuen artean idatzizko eta ahozko gaitasunak maila berean kokatu dituzte. Horrela, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zeregina da neurri berean ahozko zein idazteko formakuntza ematea. Hala ere, ahozkotasunak oraindik ere ez du idatzizkoaren garrantzi bera lortu eskolako egunerokotasunean (Vilà eta Castellá, 2014).

4. Ahozko hizkuntza lantzeko baliabideak eta metodoak: EAEn eta beste toki batzuetan

Atal honetan Euskal Autonomia Erkidegoan eta beste herrialde batzuetan ahozkotasunaren inguruan dituzten baliabideak azalduko dira.

4.1. EAEn

Euskararen kasuan, 1982an Euskararen Legea argitaratu zen, euskararen erabilera normalizatzeko egindakoa. Bertan, bosgarren artikuluan, honako adierazpen hau aurki dezakegu: “Euskal Herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz” (Eusko Legebiltzarra, 1982).

Zalbide-k (2010) aipatzen du EAeko eskoletan ikasleen euskararen erabilera bultzatzeko eta euskarazko jarduera orduak gehitzeko egin diren lanen artean euskara irakasgaitzat emateaz gainera, ikasbide bihurtu dela (B ereduan zati batean, D ereduan ikasbide bakar moduan). Eskoletan lan handia egin da alde batetik gela barruko hizkuntza-jarduera ekoizlea indartzeko, eta bestetik, gelaz kanpoko euskararen presentzia bultzatzeko. Irakasleak euskalduntzeari ere garrantzi handia eman zaiola aipatzen du autore honek, eta horretarako duela 35 urte IRALE sortu zen, irakasleak alfabetatu eta euskalduntzeko programa. Horretaz gain, euskararen erabilera bultzatzeko prozesu horretan EIMA atala ere sortu zuten, euskal ikasmaterialgintza bideratzeaz, zabaltzeaz eta diruz laguntzeaz arduratzen den programa.

Ahozkotasunaren alorrean, euskararen erabilera sustatzeko zenbait eskola-ekimen ezagutzen ditugu, ULIBARRI eta NOLEGA (Normalizazio Legearen Garapena) adibidez. Azken horretarako, umeen ahozko adierazpena indartzeko ekimenak sortu

ziren, idazketa eta irakurketa alde batera utzi gabe, baina ahozkotasanaren garrantzia aldarrikatuz. Ahozko adierazpenetako ekintzak identifikatuz sortu ziren “1985-86an, esate baterako, eskola-antzerkigintza, eskola-bertsogintza eta euskal girotze-barnetegiak” (Zalbide, 2010, 76.or.).

Horretaz gain, 1999an Euskara Biziberritzeko Plana burutu zen, euskararen normalizazioa lortzeko plana.

4.2. Beste lurralde batzuetan

Beste herrialde batzuetako egoerari dagokionez, Kataluniaren kasua aipatuko dugu. Vilà eta Vilaren (1994) lanean Bigarren Hezkuntzako irakasle kataluniarrei galdetu zitzairen ahozko hizkuntzaren trataeraren inguruan. Atera zituzten datuen arabera, %40 irakaslek onartu zuten eskola orduetan ahozko saioak egiten dituztela, nahiz eta horietan ikasle guztiek ez parte hartu. Horretaz gain, ahozko aurkezpenak edota azalpenak egiten dituzten irakasle gehienek esanetan, euren ikasleen azalpenak irakurketa ozenaren antzekoak dira, hau da, buruz ikasitakoa errezipitatzen dute. Autore hauek gehitzen dute, ahozko jardunak irakasleen galderei erantzuteko bakarrik egiten dituztela; eta maisu maistrek onartzen dute jarduera horietan ez dagoela ahozkotasuna lantzerantz bideratuta dagoen helburu hezitzailekerik. Ebaluazioaren aldetik ere hutsuneak aurkitu dituzte autoreek, izan ere, nahiz eta irakasleek ahozkotasuna kontuan hartzen duten, %80k aitortu du ikasleek nola hitz egiten duten begiratzen dutela, ahozkotasuna lantzeko programatutako jarduera zehatzak ebaluatu beharrean.

Ikus dezagun Mexikoren kasua. Nahiz eta gaztelania izan herrialde honetan gehien hitz egiten den hizkuntza, Mexikon 68 hizkuntza indigena daude (INALI, 2008). Zifra altua ematen duen arren, kontuan hartu behar dugu 130 hizkuntza indigena desagertu egin direla azken urteotan. Hori dela eta, gobernuak arreta handia eskaini dio bertako hizkuntzen babesari, eta 2002an Eskubide Linguistikoaren legea argitaratu zen, Mexikoko hizkuntza indigenak babestu eta elebitasunean oinarritutako hezkuntza bultzatzeko. Náhuatlera da hiztun gehien dituen hizkuntza indigena, baina hau beste hizkuntza batzuek osatua dagoela esan dezakegu, beraz, ez da hizkuntza estandar bakarra.

Mexikoko hizkuntza indigenen erabilera bultzatzeko ekintzen artean Flores-ek (2006) egindako ikerketa batean azaltzen den esku-hartze bat aipatuko dugu. Metodologia hau parte hartzailea da eta komunitate guztiak parte hartzeko tailer interaktiboak egiten dira. Horretarako, indigenen ahozko genero (asmakizunak adibidez) eta baliabide bisualak berreginez, animaziozko DVDak sortzen dira. Proiektuak indigenen kultura eta historia batzen ditu, joko moduan asmakizunak eta mitoak azaltzen dira, galtzeko arriskuan dauden hizkuntzetan. Animaziozko bideoak “Tlakwaatsiin” izeneko pertsonaia batekin azaltzen dira, Amerika erdialdeko pertsonaia mitologikoa da. Animazio bideoak erabiltzeak estatusa ematen die lekuko istorio eta hizkuntzei, tradizioaren eta teknologia berrien arteko lotura eginez. Kontuan izan behar dugu, Mexikon oro har, irakurtzen dakien herritarren kopurua urria dela eta beraz, hizkuntzak berpizteko biderik onena ez da idatziz gordetzea, baizik eta haren ahozko erabilera bultzatzea.

Mexiko alde batera utzita, Belgikaren egoera deskribatuko dugu jarraian. Herrialde hau lau eskualdetan banatuta dago: Erkidego Flamenkoa, Frantsesa, Alemana eta Flamenko-Frantsesa. Eskualde bakoitzean hizkuntza ezberdinak erabiltzen dira, eta hezkuntzan ere, balio ezberdina ematen zaio horietako bakoitzari.

Erkidego Frantsesean *CLIL-enseignement en inversion* sistema erabiltzen dute. Honek hizkuntza baten ikaskuntza bultzatzen du, irakasgai batzuk hizkuntza horretan emanez. Ingelesa atzerriko hizkuntza da, alemana, nederlandera eta frantsesa ofizialak dira. Nederlandarren kasuan murgiltze linguistikoa hizkuntza hori beharrezkoa den lekuetan bakarrik dago baimenduta. HHko hirugarren mailatik aurrera ordutegiaren erdia atzerriko hizkuntzan ematen da, eta ikasturteek aurrera egin ahala kopurua gutxitu egiten da Bigarren Hezkuntzan ordutegiaren laurdena izateraino. Honekin bigarren hizkuntzaren irakaskuntza goiztiarraren garrantzia ikusten da. Bigarren hezkuntzan ematen diren ikasgaiak zentro bakoitzak aukeratzen ditu, erlijioa eta etika izan ezik. Atzerriko hizkuntza horretan murgiltzeaz arduratuko diren irakasleek hizkuntza horren irakaskuntzari dagokion formakuntza izan beharko dute (European Commission, d.g).

Hizkuntzari dagokion praktiketako bat, murgiltze programaren barruan, Liège probintzian LHn eta HHn egindako “Harten Kinderen” ekintza da. Bertan, CLIL programako umeekin ikuskizun musikala egiten dute, nederlandera hizkuntzan. Honekin hizkuntza horretan hitz egitera ausartzea lortzen da, ikasgelatik kanpo, egitura

gramatikalak era naturalean eta funtzionalean ikasiz. Hizkuntzaren erritmoa, intonazioa eta musikalitateaz ohartzen dira umeak, publikoaren aurrean hitz eginez, eta beste ikasleekin harremanetan egonez (Europar Batasuna, 2011).

5. Ahozko hizkuntza eta Internet

Hizkuntza berri bat ikasten dabilen edozein ikasleren arazoetako bat izaten da ahozko adierazpena. Horrela izanik, ahozko hizkuntzan jariora izateko modu bakarra hizkuntza hori praktikatzea litzateke. Gainera, ezin dugu ahaztu, hizkuntza bakoitzeko ahozko diskurtsoak berezko egitura, arau eta abileziak dituela, idatzizko hizkuntzarekin alderatuta ezberdinak direnak (Pereira, Sanz, Gutiérrez eta Perurena, 2011).

Azken urte hauetan Informazio eta Komunikazio Teknologiek hezkuntzaren eremuan eragin handia izan dutela ez dago inolako zalantzarik (Sotomayor, 2010). Internet elkartutako sare informatikoen multzoa da, arau komun batzuekin ordenagailu batetik beste sare bateko zerbitzarira mezuak bidaltzea ahalbidetzen duena (Crystal, 2002).

Crystal-ek (2002) duela urte batzuk esaten zuen moduan, ahozko hizkuntzak presentzia murriztua dauka Interneten, soinu, pelikula eta bideo clip-etara mugatua dago. Urteek aurrera egiten duten heinean, gero eta nagusitasun handiagoa lortuko du teknologia garatuz joango delako, eta gero eta ohikoago egingo zaigu elkarrizketaren erabilera Interneten. Argazki eta hizketaldi interaktiboen bidez, pantailan ikusten duguna kontatuko digute ahots baten bidez, eta jendearen ahotsa antzemateko sistemen bidez, web orrietan erabiltzaileen arteko ahozko komunikazioa ahalbidetuko dute.

Interneten bidez, online erabiltzeko programak sortu dira, hezkuntza eta ikerkuntzari laguntzen diotenak. Baliabide horietako batzuk aipatzearen, wikiak eta sare sozialak ditugu. Sotomayor-ek (2010) Blin-en aipamena eginez (2006) wikien baliagarritasuna azaltzen du bigarren hizkuntzen irakaskuntzarako. Wikietan ahots grabagailuak, kamara digitalak, word eta power pointak erabiliz ahozko zein idatzizko hizkuntza lantzeko portafolioak sor daitezke. Sare sozialek bestalde, ikaskuntza inguru bat diseinatzen laguntzen digute, elkarlanean idatziz, eta hizkuntza ikasten laguntzen digute.

Ahozko hizkuntzaren ikaskuntzari dagokionez, Pim-ek (2013) dioenez, ingelesaren ikaskuntzarako tradizioz estrategia eraginkorrenak abesti, erritmo eta istorioak izan dira. Hala ere, internet tresna oso aberatsa izan daiteke ahozko hizkuntza lantzeko, kontatutako liburu elektronikoak, podcast-ak, bideo klipak etab. aurki ditzakegulako bertan, ikasleei ahoskeran eta hiztegi berria barneratzen lagunduko diotenak. Teknologiaik gainera, umeen ahotsak grabatzea ere ahalbidetzen digu, geroago entzun eta ebaluatzeko. Horrela, entzuteko gaitasuna garatzeaz gain, ikasleak gai izango dira gramatikan eta ahoskeran dituzten akatsez ohartzeko.

Hizkuntzen ikaskuntzan Interneten erabileraren adibiderik nagusia aurrez aurrekoa ez den ikaskuntza dela esan dezakegu. Ikaskuntza mota honetan, ikasleak, klasera joan gabe hizkuntza ikas dezake. Jordano-ren esanetan (2011) hasiera batean hizkuntzen distantziako irakaskuntza idatzizkoa bakarrik lantzerantz bideratzen bazen ere, ahozko hizkuntzaren praktika alde batera utziz, urteak pasa ahala hori aldatuz joan da. Gaur egun, garrantzi handiagoa hartu du taldeko ikaskuntzak, ikaskuntza indibidualak baino gehiago; eta ikaslea bihurtu da ikaskuntzaren protagonista, irakasle eta testu liburuari lekua kenduz. Berrikuntzen artean, klase magistralen, elkarrizketen edota debateen grabaketak ikusi zein entzuteko aukera aipa dezakegu, eta hori ahalbidetzeko dauden programen ugartasuna. Autore beraren esanetan, nahiz eta zenbait adituk dioten bigarren hizkuntza praktikatzeko modurik egokiena irakaslearen eta ikaslearen arteko komunikazio pertsonala dela, distantziako ikaskuntzan beste zenbait baliabide daude arazo horri aurre egiteko. Ezagunenetakoa “Second Life” plataforma da, komunikazioa ahalbidetzen duen joko birtuala.

Ahozko hizkuntza lantzeko bestelako Interneteko baliabideen artean *Babelium Project* aurki dezakegu. Tresna honen bidez ikasleek bigarren hizkuntzako ahozko gaitasuna garatu dezakete eta elkarlanaren bidez praktikatzen. Proiektu hau bakoitzak bere ama hizkuntza ondo erabiltzen duen ideian oinarritzen da, horrela, lankidetzako inguruan, kode irekian eta bideoak baliabide didaktikotzat erabiliz, atzerriko hizkuntza landu daiteke. Sistema honek baliabide horiek erabiltzen dituen bigarren hizkuntza ikasten daudenei ordutegi zehatzik jarraitu gabe, eta dirurik gastatu gabe ahozkoa praktikatzeko laguntzeko (Pereira, Sanz, Gutiérrez eta Perurena, 2011). Programa honetan erabiltzaileek egunerokotasuneko elkarrizketen bideoak igo ditzakete hizkuntza jakin

batean, bideoak ikusi, audioak grabatu eta elkarbanatu. Horretaz gain, elkarlanean oinarritutako ebaluazioa ere egiten da.

Laburbilduz, gaur egun teknologia berriek aukera gehiago ekarri dizkigute hezkuntzara, hizkuntzen irakaskuntzara barne. Interneten baliabide ugari ditugu bigarren hizkuntzak ikasi eta praktikatzeko, eta eskolarako ere baliogarriak izan daitezke. Aro digitalean bizi garen aldetik, inguruko berrikuntzez baliatu beharko ginateke ahal dugun neurrian, eta horiek ahozko hizkuntza lantzen lagunduko badigute, zergatik ez erabili?

6. Proposamena: web orria.

Atal honetan ahozkotatasuna lantzeko sortu den proposamena aurkeztuko da: *Berbaleku* izeneko web orria. Proposamen honen helburu nagusiak hauek dira:

- Irakasle eta gurasoei ahozkotatasunaren inguruko informazioa eta datuak eskaintzea, eta haren garrantziaz gogoeta egitera bultzatzea.
- Ahozkotatasuna lantzeko baliabide eta material ezberdinak eskaintzea.
- Ikasleen ahozko gaitasuna garatzea.

6.1. Curriculumarekin lotura

Atal honetan proposamen honetako gaitasun eta helburuak azaldu nahi dira, Heziberri 2020 planaren barneko 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (EHAA, 2016-01-15) erabiliz.

Web orri honen erabilerak gaitasun batzuk garatzea du xede, eta horien artean oinarrizko zehar-konpetentziak eta diziplina barneko konpetentzia edo gaitasun zehatzak bereiz ditzakegu.

Oinarrizko zehar konpetentziak bost dira:

1. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia. Konpetentzia honek barne hartzen ditu hitzezko, idatzizko zein hitzik gabeko komunikazioan jariakortasunez, autonomiaz eta sormenez aritzea, bai eta teknologia berriak erabiltzeko gaitasuna izatea ere. Gaitasun hau modu zuzenean garatzen da web orriaren bidez, teknologia berriek eskaintzen diguten baliabidea izanik, eta ahozko hizkuntza lantzerantz zuzendutako plataforma izanda.

2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia. Ikasteko ohitura eta jarrera izateko informazioa ulertu, interpretatu eta aukeratu egin behar da, gerora ikasitakoa egoera ezberdinetan aplikatu ahal izateko. Baliabide berrien bitartez, ikasteko jarrerarako motibazioa eskaintzen da, haurrek aukera ezberdinak ezagutuz eta ikaskuntza modu aktiboago batean bideratuz.

3. Elkarbizitzarako konpetentzia. Gaitasun honek lotura dauka komunikazioarekin, gainerakoekin sentimendu, ideia eta pentsamenduak elkarbanatzearekin; beraz, gure baliabidearekin landuko den konpetentzia izango da. Taldeko lanen bidez, elkarrekin lan egiten ikastea da helburua, gatazkak elkarriketaren bidez konpon daitezkeela ikastea.

4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia. Honako hau ere landuko da web orriaren bitartez, izan ere, ikasleak euren ikasketa prozesuaren protagonistatzat hartuta, euren material propioa diseinatzeko aukera emango zaie, proiektu berriak sortzeko eta ebaluatzeko ardura hartuz eta ekimenerako jarrera bultzatuz.

5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia. Konpetentzia honen osagaietako bat da hitzeko eta hitzik gabeko hizkuntza eta hizkuntza digitalaren autoerregulazioa, eta azken finean hori da web orriaren helburu nagusietako bat. Bestelako osagai batzuk ere zeharkako moduan lantzen dira baliabide honen bitartez, hala nola motibazioaren, emozioen eta ikasketa prozesuaren autoerregulazioa, baita modu autonomoan erabakiak hartu eta norbere betebeharrak onartzea ere.

Diziplina arteko oinarrizko konpetentziak “bizitzako esparru eta egoeretan –esparru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan– arazo-egoerak eraginkortasunez ebazteko behar diren konpetentziak” dira (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2016, 18.or.). Web orriarekin landuko diren gaitasun zehatzak honako hauek dira:

1. Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia. Web orriaren bidez euskararen ahozko erabilera bultzatu nahi bada ere, bertako zenbait baliabide beste hizkuntza bat lantzeko ere erabil daitezke.

2. Konpetentzia sozial eta zibikoa. Gaitasun hau landuko da bereziki taldean lan egitean, gainerako ikasleekin komunikatu eta errespetuz jokatu behar dela ikusten dutenean.
3. Arterako konpetentzia. Gure baliabidearekin ikasleek irudi, abesti eta bideoekin aritu beharko dute askotan, eta beraz, arte-adierazpenak irudimena erabiliz mezuak komunikatzeko modu bat izan daitezkeela ohartuko dira.

Konpetentzia horiekin helburu zehatz batzuk bete nahi dira (Ikus 1. Eranskina).

6.2. Proposamenaren deskribapena

Lanaren zati honetan web orriaren deskribapen zehatza egingo da, atal bakoitza azalduz, eta eskaintzen diren baliabideetan zentratuz. Web orri hau burutzeko erabilitako prozedura zati ezberdinetan bana daiteke: lehenengo web orriko informazioaren bilaketa eta hautaketa egin da, bigarrenik bertan agertzen diren baliabideak sortu eta azkenik web orriaren diseinua egin da. Honako hau da web orria: <https://berbaleku.wixsite.com/berbaleku>.

6.2.1. Proposamenaren atalak eta burutzeko erabilitako prozedura

Web orriaren diseinua egiteari dagokionez, diseinu simple baten aukeraketa egin da, irakasleek eta gurasoek nahiz ikasleek erabiltzeko. Orrialdea diseinatzeko <https://www.wix.com/> programa erabili da. Kontaktatzeko helbide elektronikoa ere sortu da: berbaleku@gmail.com. Helbide hori atal guztietako behealdean txertatu da, edozeinek informazioa eman dezake eta aldera edo eskaeraren bat egin nahi izanez gero eskuragarri izateko. Hona hemen web orriko atalak (ikus 2.eranskinean interesgarrienak):

a) Ahozko hizkuntza

Atal honetan bi galderari erantzuten zaie: zergatik landu ahozkotasuna eskolan eta nola landu. Informazio bilketa egiteko aurreko “Ahozko hizkuntza: definizioa eta ezaugarriak” eta “Ahozkotasunaren garrantzia eskolan” atalak burutzeko erabilitako iturri berberak erabili dira, baina informazioaren hautaketa egitean era orokorrago batean azaltzea erabaki da, helburua irakasleei azaleko informazioa eskaintzea da eta.

Bideo baterako lotura ere ematen da; bertan ahozketasuna lantzeko proiektu baten berri eman eta ahozko transmisioaren garrantzia azpimarratzen da. Informazio honen helburua irakasleek ahozketasunari ematen dioten garrantziaz gogoeta egin eta hura lantzeko moduak bilatu eta erabiltzera animatzea da.

b) Begirada orokorra

Euskal Autonomia Erkidegoko eta beste herrialde batzuetako ahozketasunaren inguruko datuak eskaintzen dira atal honetan. Beste herrialde batzuk izeneko azpiatalean mapa interaktibo bat egin da, iturri ezberdinetan lortutako informazioarekin herrialde batzuetako ahozketasunaren trataera ezagutu ahal izateko. Mapa interaktiboa osatzeko, zenbait herrialdetako dokumentuak irakurri dira, eta nahiz eta gaiari buruzko informazioa urria izan, gainerako herrialdeetako ahozketasunaren inguruko datuez osatutako mapa egitea lortu da. Aurkitu den informazioarekin, Mexiko, Belgika, Australia eta Txekiar Errepublikako atalak bete dira (informazio horren inguruko ideia batzuk lan honetako “4. Ahozko hizkuntza lantzeko baliabideak eta metodoak: EAEn eta beste toki batzuetan” atalean aurki daiteke). Informazio faltak agerian uzten du gaiari ematen zaion garrantzi urria, eta hori dela eta, proposamen ezberdinak batuko dituen plataforma baten beharra ikusten da. Hutsune hori betetzeko helburuarekin ere egin da web orri hau, eta bereziki atal hau. EAEko azpiatalak Heziberri 2020 planaren barneko 236/2015 Dekretuak ahozketasunari buruz dioena azaltzen du, irakasleek curriculumak eskuragarri izan dezaten jardueraren bat burutzeko orduan.

c) Baliabideak

Atal honetan ahozketasuna lantzeko zenbait baliabide eskaintzen dira. Azaltzen den informazioa irakasle edo gurasoei zuzenduta badago ere, umeak ere euren kabuz ibil daitezke material hauek erabiltzen. Baliabideak sortzeko ahozketasunerako egokiak diren materialetan pentsatu da: bideoak, irudiak, komikiak, ipuinak, jokoak...etab. Ziklo ezberdinetarako material batzuk sortu dira, eta irakasle edo gurasoei horiek sortzeko interneteko programak eskaini zaizkie.

- Errezetak. Hauen bidez ahozko aurkezpena egitea aukera egokia izan daiteke. Web orriko proposamenean, bideo bat eta irudien bidezko errezeta bat azaltzen dira, eta horien inguruko azalpena egitea da proposatzen den jarduera. Errezeta

horiek umeeekin etxean edo ikasgelan egiteko egokiak dira, eta eskaintzen ditugun bideo edo irudi horiek ikustearekin batera janaria prestatzeko ematen diren pausuak deskribatzeko aukera dago. Horretaz gain, ikasleek taldeka bertan agertzen diren bideo edo irudien antzeko lana egitea ere proposatzen da, gero ikaskideen aurrean bakoitzak bere errezeta aurkezteko. Bideoa egiteko honako pausu hauek jarraitu dira: grabatu, Movie Maker programaren bidez editatu, eta Youtubera igo.

- Ipuinak. Kasu honetan ipuin kontaketa oinarritzen da material hau, eta horretarako bi ipuin aurkezten dira: Katu Beltzaren ipuina eta Anbotoko Mari. Horretaz gain, azkenaren kontaketa ere eskaintzen da, bideo formatuan. Ipuin kontaketen bidez, entzumena lantzeaz gain, ahozkoa ere lantzen dela argi utzi nahi da. Ahozko jardun honek forma propioa du, eta beraz, hurrekin ere kontakizuna landuko dugu baliabide honen bitartez. Ipuin hauekin proposatzen diren jarduerak honakoak dira:
 - Txikienentzat: irakasleak ipuina kontatuko du, irudiak erakutsiz. Bitartean galderak botako ditu, zer gertatuko den edo zer iruditzen zaien bezalakoak, ikasleek ere ipuinean era aktiboan jokatu ahal izateko. Amaiera bat asmatzeko ere eskatu ahal zaie ikasleei, gainerakoei kontatzeko.
 - Ikasleak ipuin kontalariak izan daitezke. Horretarako, istorioa irakurri eta ondo kontatzen ikasi beharko dute, keinuak eta gorputz jarrerak zainduz. Bideoak eta audioak ere graba daitezke, dibertigarriagoa izateko.
 - Istorioak antzeztu. Ipuina irakurri ostean gidoia egin eta antzerkia prestatu daiteke.

Ipuinen kontaketarako bi ipuin eskaintzen dira, biak ere <http://www.ahotsak.eus/> orrialdean aurkitzen diren baliabideetan oinarritutakoak. Horretarako, bertako arduradunei materiala erabiltzeko baimena eskatu zaie. Irudien eta bideoen bidezko baliabideak sortzeko erabilera libreko argazkiak eta bideoak erabili dira, <https://pixabay.com/> orrialdetik hartutakoak.

- Komikiak. Web orrirako zenbait komiki sortu dira, *Pixton* eta *Power Point* programen bidez, irudiez bakarrik osaturik daudenak. Sormena erabiliz, irudietan datorren istorioa garatzea da helburua; pertsonaia bakoitzari ahotsa jarritz, gertatzen dena kontatzea. Erabiltzaileak bere gustura inprimatu ahal izateko eskuragarri ditu pdf formatuan. Ikasleen adinaren arabera aukera ezberdinak daude: gaztetxoentzako bineta bakarreko komikiak dira, irudi handiekin egindakoak; nagusiagoentzako hamabi binetaz osatutako komikiak. Material horretaz gainera, irakasle zein ikasleek komikiak sor ditzaten <https://www.pixton.com> lotura eskaintzen da.
- Jokoak. Bi material eskaini dira atal honetan: rol jokoak eta hitz debekatuaren jokoak. Lehenengoak egoera ezberdinak kontatzen dituzten txarteltxoak dira, bi, hiru edo lau pertsonaia dituztenak. Bakoitzak rol bat hartu eta txartelean esaten den bezala jokatuko du: askotan arrazoiketak izango dira, elkarrizketak beste batzuetan, eztabaidak...etab. Hitz debekatuaren jokoak aski ezaguna bada ere, web orrian joko horren alde egiten da ahozkotatasuna lantzeko baliabide bezala. Txarteltxo bakoitzean deskribatu beharreko kontzeptu bat egongo da idatzita, eta debekatutako lau hitz. Horiek esan gabe, jokalaria kontzeptua azaldu beharko du besteek asmatzeko.
- Argazkiak. Irudien bidez istorioak sortzeko aukera dago material honen bitartez. Diapositiba bakoitzean hiru txartel ezberdin bereizten dira, pertsonaia, lekua eta objektua; txartel horiek moztu eta kolorearen arabera hiru multzo egin behar dira. Multzo bakoitzetik bat hartu eta egokitutako irudiekin istorio bat sortu behar da. Hauek egiteko, aurreko ataletako batean aipatutako loturatik erabilera libreko argazkiak erabili dira. Horretaz gain, argazkiekin aritzeko interneteko programa baten lotura ere ematen da: <http://www.fotobabble.com/>. Oso baliabide erabilgarria da, izan ere, argazki bat igo eta hari ahotsa jartzeko aukera ematen du, horrela irakasleari edo ikasleei lana ebaluatzeko aukera emango zaie.
- Bideoak. Ahozkotatasuna lantzeko bideo mutuei ahotsa jartzea proposatzen da, eta horretarako Berbalekuk erabilera libreko bi bideo labur eskaintzen ditu, web orrirako propio sortu den beste bideo batekin batera. Hori egiteko <https://www.powtoon.com/> programa erabili da, eta eskaintzen diren

materialekin animaziozko bideo mutu bat egin da. Proposamena luzatu ostean, beste bideo batzuetarako loturak ere txertatu dira, eta erabiltzaileak ere aukera dauka nahi duen bideoarekin jarduera hau burutzeko. Ikasleak motibatuzeko jarduera interesgarriak izan daitezke, euren gustuko bideo eta marrazki bizidunei ahotsa jar diezaieketelako.

d) Gurasoentzako atala

Atal honetan gurasoentzako informazioa eskaintzen da, umeei etxean laguntzeko gomendioak emanez baita etxean ahozkoasuna lantzeko, aho korapilo eta asmakizun herrikoien adibideak eskainiz. Horretaz gain, beste web orri edo artikulua interesgarri batzuetarako loturak aurki daitezke bertan.

e) Irakasleentzako atala

Alde batetik ebaluazioari buruzko informazioa eskaintzen da, irakasleek horren inguruan gogoeta egin dezaten, ebaluazio egoki baten garrantziaz ohartuta ikasleen beharren arabera jarduerak hautatu ditzaten. Irratsaio edo podcastak ebaluatzeko errubrika bat ere aurkituko dute bertan, deskargatu eta euren gustura moldatu dezaketena. Horretaz gain, zalantzarako foro bat eskaini da, leku ezberdinetako profesionalen ideiak trukatzeko helburuarekin.

f) Txat-a.

Erabiltzaileen arteko komunikazioa bultzatze aldera, txat bat eskaintzen da. Hori erabili ahal izateko helbide elektronikoarekin erregistratu besterik ez da egin behar.

7. Ondorioak

Gradu amaierako lan honen helburua Lehen Hezkuntzan ahozkoasuna lantzeko proposamen berritzailea egitea izan da, hura lantzeko beharra dagoela ikusita. Irakasleek eta gurasoek askotan ez dute jakiten ahozko hizkuntza nola landu, hori dela eta, eurentzako informazio gune bat eskaintzea erabaki da.

Laburtzeko, Berbaleku ahozkoasuna lantzeko baliabideak eskaintzen dituen web orria da eta irakasle eta gurasoei zuzenduta badago ere, ikasleek ere erabiltzeko modukoa da. Web orrialdearen helburu nagusia ahozkoasuna lantzeko tresnak eskuragarri izatea da,

zenbait informazio eta material leku berean bilduta izanik, gaiaren inguruko zalantzak modu argian argitzeko asmoz egindakoa. Ahozko hizkuntzarekin batera, idatzizkoa eta ulermena lantzeko aukera dago, egoera desberdinetako komunikazio premiei behar bezala erantzuteko. Komunikazio teknologiaak autonomiaz erabiltzen ikasten hasteko tresna egokia ere bada, material asko Interneten bertan erabili beharrekoak izanik.

Zenbait atalez osatutako proposamena da, eta garrantzitsuena baliabideak eskaintzen dituen bada ere, irakasleentzako eta gurasoentzako informazio interesgarria ere aurki daiteke bertan. Horretaz gain, erabiltzaileen arteko komunikazioan ere lagundu nahi da, foro eta txaten bidez. Kontaktatzeko helbide elektronikoko bat sortu da, gomendio, zalantza eta eskaerei erantzuteko. Euskararen ahozko erabilera bultzatu nahi bada ere, bertako zenbait baliabide beste hizkuntza bat lantzeko ere erabil daitezke, eta gomendioak ere atzerriko hizkuntzako irakasleek erabiltzeko modukoak dira.

Etorkizunari begira, baliabide honen erabilera zabaldu nahi da, Euskal Herriko txoko guztietara. Aurrera begira gainera, baliabideak eskaintzeaz aparte, material eta informazio trukeak egiteko gunea izatea espero da, bertako erabiltzaileen arteko komunikazioa bultzatuz. Horrela, eskoletan ahozkotasuna lantzeko beharrari erantzun nahi zaio, ikasleek euskaraz mintzatzerantz animatuz.

8. Bibliografia

Crystal, D. (2002). *El lenguaje e Internet*. Cambridge: Cambridge University Press.

European Commission (d.g) *Eurydice*. 2017ko otsailaren 18an berreskuratua <https://webgate.ec.europa.eu/fpfis/mwikis/eurydice/index.php/Countries> -tik.

Europar Batasuna. (2011). *Examples of Good Practice*. Bruselas: European Commission. 2017ko otsailaren 27an berreskuratua http://ec.europa.eu/dgs/education_culture/repository/languages/policy/language-policy/documents/ellp-handbook_en.pdf -tik

Europako Kontseilua, Hizkuntza Politika Saila (2001) *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa*. 2017ko martxoaren 15ean berreskuratua http://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/oinarriak/eu_9716/adjuntos/europako_markoa.pdf -tik.

Euskararen Aholku Batzordea (2004). *Ikastetxeetan euskararen erabilera indartzeko planak EBPN udal-ereduekin uztartzea*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 2017ko martxoaren 29an berreskuratua
http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/7041/eu_2447/adjuntos/Ikastetxeetan_erabilera_indartzeko_eu.pdf -tik

Eusko Legebiltzarra (1982) *10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa*. Gasteiz. 2017ko otsailaren 23an berreskuratua
http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/euskara_legearen_itzulpen%20berria%20IZO.pdf -tik

Flores, J. A. (2006). Definición de buenas prácticas en la revitalización de lenguas: una agenda en curso. *CUHSO*, 28-36. 2017ko martxoaren 25ean berreskuratua
http://repositoriodigital.uct.cl/bitstream/handle/10925/1012/CUHSO_0716-1557_03_2006_11_art3.pdf?sequence=1 -tik.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. (2016). *236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (EHAA, 2016-01-15)*. 2017ko martxoaren 7an berreskuratua,
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43573/eu/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/bigarren_egitasmoa.html -tik.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. (2014). *Heziberri 2020 Hezkuntza-eredu Pedagogikoaren Markoa*. 2017ko martxoaren 7an berreskuratua,
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43573/eu/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_heziberr/adjuntos/Heziberri_2020_e.pdf -tik.

INALI (2008) *gob.mx*. 2017ko martxoaren 23an berreskuratua.
<http://www.inali.gob.mx/clin-inali/> -tik

Idiazabal, I., & Garcia, I. M. (2006). *Ahozko hizkuntza: Euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lan*. Euskara Errektoreordetzaren Sare Argitalpena. 2017ko otsailaren 8an berreskuratua <https://ikasmaterialak.ehu.eus/hezkuntza/ahozko-hizkuntza> -tik.

Jordano, M. (2011). La enseñanza-aprendizaje de la competencia oral en lengua extranjera en el contexto de la educación abierta y a distancia: de la casete a la interacción virtual. *RIED. Revista Iberoamericana de Educación a Distancia*, 14, 15-38.

Lamas, C. (2005). Discurso oral y discurso escrito: una propuesta para enseñar sus peculiaridades lingüísticas en el aula de ELE. *Actas del XVI congreso internacional de ASELE* (or. 402-411). Centro Virtual Cervantes. 2017ko martxoaren 13an berreskuratua
http://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca_ele/asele/pdf/16/16_0402.pdf -tik.

Larrea, K., & Maia, J. (2010). Galdera-erantzun batzuk hizkuntzaren didaktikaz. *Euskara eta eleaniztasuneko errektoreordetzaren sare argitalpena*. 2017ko otsailaren 7an berreskuratua
https://www.researchgate.net/publication/260041965_Galdera_erantzun_batzuk_hizkuntzaren_didaktikaz_WEB_EHU -tik.

Müller, M. V. (1999). *Técnicas de comunicación oral*. San José, Costa Rica: Editorial de la Universidad de Costa Rica.

Pereira, J. A., Sanz, S., Gutiérrez, J., & Perurena, I. (2011). BabeliumProject.com: una aplicación RIA de código abierto para la práctica colaborativa de la expresión oral en segundas lenguas. *Jornadas de Ingeniería del Software y Bases de Datos (JISBD)*. A Coruña. 2017ko martxoaren 14ean berreskuratua

http://lbd.udc.es/jornadas2011/actas/JISBD/JISBD/S2/Tools/03_Babellium_Pereira_demo_herramienta.pdf -tik.

Perez, K., Azpeitia, A., & Alonso, I. (2015). Unibertsitatea eta eskola elkarrekin ahozko hizkuntzaren didaktika lantzen: egunkariaren erabilera etengabeko prestakuntzan. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 96 , 29-43.

Perez, K. (2014) Irakasleen prestakuntza ahozko hizkuntzaren lanketa eskolan sustatzeko praktika gogoetatsuan oinarritutako prozesu baten azterketa. 2017ko otsailaren 7an berreskuratua

http://katalogoa.mondragon.edu/Documentos/Tesis/HUHEZI/Tesi_Irekiak/2014-2015/KarmelePerez_Tesia_2014-2015.pdf -tik

Pim, C. (2013). Emerging technologies, emerging minds: digital innovations within the primary sector. G. Motteram-en lanean, *Innovations in learning technologies for English Language Teaching* (15-42 or.). Londres: British Council. 2017ko martxoaren 7an berreskuratua

https://www.teachingenglish.org.uk/sites/teacheng/files/C607%20Information%20and%20Communication_WEB%20ONLY_FINAL.pdf -tik.

Ramírez Martín, J. (2002). La expresión oral. *Contextos Educativos*, 5 , 57-72.

Sainz, M., Ozaeta, A., & Garro, E. (2009). Ahozko hizkuntza lantzen. Haur Hezkuntzan hasi eta unibertsitateraino. *Hik Hasi*, 140 .

Sierra Onaindia, J. (1996). Murgiltze programen zenbait ezaugarri. *Hik Hasi*, 12 .

Sotomayor García, G. (2010). Las redes sociales como entornos de aprendizaje colaborativo mediado para segundas lenguas (L2). *EDUTEC. Revista Electrónica de Tecnología Educativa* . 2017ko martxoaren 14an berreskuratua

http://www.espanaaqui.com.br/materiales_exclusivos/materiales/material_157.pdf -tik.

Vilà, M., & Castellà, J. M. (2014). *10 ideas clave. Enseñar la competencia oral en clase. Aprender a hablar en publico*. Barcelona: GRAÓ.

Vilá, M.; Castellá, J.M. (2005). La lengua oral formal: características lingüísticas y discursivas. M. Vilá-ren lanean, *El discurso oral formal. Contenidos de aprendizaje y secuencias didácticas* (or. 25-36). Barcelona: GRAÓ.

Vilà, M., & Vila, I. (1994). Acerca de la enseñanza de la lengua oral. *Comunicación, Lenguaje y Educación*, 23 , 45-54. 2017ko otsailaren 2an berreskuratua

<https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/2941338.pdf> -tik.

Zalbide, M. (2010). *Euskararen legeak hogeita bost urte Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa*. Bilbo: Jagon Saila. Euskaltzaindia.